

H M

TXOKOA

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

BERRIAK

"Herri Musika Zaleak" elkarteak:

tresna berri bat herri musikari merezi duen duintasuna emate aldera

Herri musikarekin lanean gabiltzanok ez dugu izaten erraztasun handirik gure jardueraren ibilbideko atal askotan. Zaletasuna izaten da gure eragile eta motorra, eta maiz gertatzen zaigu lan eta proiektuak osatzen ditugula eta ez dugula nola argitaratu, dirurik ez, babes legalik ez... Arazo horiei aurre egiten lagungarri izan daitekeen tresna bat antolatzeko asmoz, "Hernani" Musika Eskolako euskal herri soinu-tresnen mintegia eta Herri Musikaren Txokoaren eraginez, "Herri Musika Zaleak" elkarteak jarri dugu martxan.

Apal-apal hasi du elkarte honek bere bidea, Hernani eta Oiartzunen arteko lankidetzak abiaburu, baina asmoz elkarte irekia da, indarrak bildu eta ahal den aukera zabalenak eskaintzea dituen helburu. Hasteko behintzat, bi lantegi hartu ditu asmotan: batetik herri musikaren inguruko lan eta material ezberdinak argitaratzeko bitartekoak jartzea, eta bestetik HM Txokoaren lankide edo bultzatzaile gisa, beronen jardura ezberdinak bultzatzeko oinarri soziala bideratzea. Horiek lanean hasteko lehen ildoak dira, baina esan bezala, txikian enbidoa botaz hasi arren, egitasmoa zabalduta eta hazten joango den esperantzaz hasi da lanean.

Bide horretan, eragin ditu jada lehen argitalpenak: batetik, 19. txalaparta festa jasotzen duen DVDa eta CDa atera ditu, hala nola "Txalaparta Festa hogeitertietan" CD Rom-a ere. Txalaparta Festa Hernanin ospatzen da, maiatzean, aurten 21. edizioa egin duelarik, eta "Hernani" Musika Eskolako txalaparta taldea izaten da beraz antolatzen duena. 19. txalaparta festa 2005. urtean ospatutako izan zen hortaz, eta han izandako emanaldi eta saio ezberdinak jasotzen dituzte DVDak nahiz CDak. Hurrena berriz, 2006.ean, festa honek 20 urte egin zituela

eta, historia luze horren labur-bilduma irudi eta soinutan, eta huraxe da argitaratu den CD Rom hau.

Bestalde, HM Txokoak prestatu duen Ttakun 2.1 programa informatikoa ere argia ikusteko zegoen, eta horri ere bide eman dio jada Herri Musika

eta alai. Dultzaina eta trikitixa elkarrekin aritzea ez da formato berria herri-musikan, baina horrela diarduten taldeak oso gutxi dira eta ez zegoen oraindik kalean errepertorio berezi hau jasoko zuen diskorik. Beltran-Astiasaran hirukoteak urteak daromatza plazaz plaza elkarrekin jotzen, 1984.ean lehen aldiz Tolosako inauterietan hasi zirenetik gaur arte, eta urte horien poderioan errepertorio polita osatu dute, Gipuzkoako dultzainero eta trikitilariari ikasitako pieza herrikoiak gehienak.

Horrelakoekin osatu dute "Amasatik Arratera". Izan ere, Amasako Sanmartinak izan dituzte hiru lagunok urte luze hauetan plaza berezi eta iraunkorrenetakoa, eta 2004-2005. urteetan Arrate Irratian egin zituzten grabazioek eman diete gerora ospe handiena eman dietenak: hortik diskoaren izenburua.

Horiek izan dira sortu berri den Herri Musika Zaleak elkarte honen lehen argitalpenak, eta bide horri eutsiz Hernaniko Txistulari Jaialdiaren emaitzak ere argitaratzeko asmoa darabil, proposamen eta aukera gehiagori atea zabaltzeko gogoz.



Zaleak elkarte honek. Programa hau txalaparta musika idazteko bereziki pentsatu eta prestatuta da, eta seguru asko 2.1 bertsio hau behin-betiko ez bada ere, jada aski erabilgarria izan lezaieke txalapartaren irakaskuntzan ari direnei.

Estudioan egindako beste grabaketa bat ere argitaratu da: Oiartzungo "Lezoti" estudioan, Juan Mari Beltran, Luis Astiasaran eta Joxe Mari Astiasaranez grabatu dute "Amasatik Arratera" disko berezi

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2007ko uztailaren 28an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Juan Mari Beltran, Luis eta Jose Mari Astiasaran *Amasatik Arratera*

"Astiasaran anaiak" aspalditik oso ezagunak dira Trikitixa munduan. Luisek Eleuterio Tapiarekin eman zituen soinua jotzen aurreneneko urratsak eta garai hartan Jose Mari Eleuterio berarekin panderoa jotzen zuen.

"Astiasaran Anaiak" bikote honek 1971. urtean Donostiako Trinitateko Plazan ospatutako Euskal Herriko Trikitilarien Txapelketan parte hartu zuen. Geroztik, hamaika herritan aritu dira urtez urte mota guzietako festa eta ospakizunetan.

Juan Mari Beltran hamaika urteekin Etxarri Aranatzeko Musika Bandan klarineta eta Txistularien taldean txistu eta danbolina jotzen zituen. Hamasei urte zituela euskal herri musikan eta soinua tresna munduan hasi zen bere ibilbide luzea: Argia, Azala, Txanbela eta Goikoetxea-Beltran bikotean aritu da eta azken urteetan bere izenarekin. Hamar disko grabatu ditu eta beste talde eta musikarien disko askotan parte hartu du.

Astiasaran anaiak eta Juan Mari Beltran, Euskal Herrian garai batean erabilia izan zen soinua eta

dultzainaren taldea osatuz, aurreneko aldiz 1984an Tolosako inauterian jo zuten. Geroztik eta gaur arte bide luze bat egin dute elkarrekin. Beste toki askoren artean, hirukote hau urtetan

eta urtero Amasako Sanmartinetan aritu da. Hura izaten zen urteko egunik luzeena; goizeko sei-tako baserriz baserri "oilasko-biltzea"rekin hasi eta afal ondorengo bukaezinezko azken dantzaldia



bukatu arte.

2004ko apirilean Arrate Irratian egindako saiorako bederatzi piezaz osatutako konpaktua grabatu zen eta 2005eko uztailan egindako saiorako beste hamabi piezaz osatutako bigarrena. Arrate Irratian egindako bi grabazio hauek izan dira azken urtetan talde honi ospe handien eman diotenak eta hori izan da grabazio haietan erabilitako doinuekin "Amasatik Arratera" izeneko diskoa argitaratzeko arrazoia. Erromerietako hemeretzi dantza doinu hauek hirukote honen eskaintzaren zati txiki bat besterik ez da.

Formatia Flueraș

Basarabiako moldaviar lurraldeko musika



Basarabiako mugak Dniester eta Prut hiba-
iak dira, lehenengo ekialdean eta mende-
baldean bigarrena. Izen horrekin ezagutzen
zen Moldaviako printzerriaren ekialdeko zati
bat, Errusiar Inperioak turkoei eskuratu ziena
1806-1812 gerratearen ondoren. Moldaviaren
beste zatiak, Wallachiarekin batuta
Errumaniako Erresuma osatu zuen 1859an.
Lehen Mundu Gerratearen ondoren
Besarabia independente bihurtu zen eta
Errumaniarekin batu zen, baina Bigarren
Gerratean Sobiet Batasunak bereganatu
zuen, Moldaviako errepublika sortuz. 1991an
berriro lortu zuen independientzia.

Erdialdeko eta Ekialdeko Europa batzen dira
Balkaniar penintsularekin Moldavian eta,
beraz, bere kulturak hiru zonalde horien era-
gin handiak jasotzen ditu. Moldaviak, Inperio
Otomanoaren menpe egon zenez, badauka
kultura turkiarraren eragina ere. Bestalde,
inguruko lurraldetarantzko eslaviarren eta
Transilvanianarantzko alemaniar eta hungaroen
migrazioek zantzu garrantzitsuak utzi dituzte
lurralde honen izaeran. Azken bi mendeotan

Mendebaldeko
Europaren eragina ere
(berezi Fraitziarena
eta, neurri apalagoan,
Alemaniarena) gertatu
da.

Talde honteko kideak
moldaviar etorkinak
dira eta Logoñon elkar
ezagutu dira, han bizi
direlarik. Basarabiako
herri musikako hainbat
erritmo eta doinu klase
erakutsiko digute:
*Sirba, Hora, Batuta,
Polca, Doina,
Hostropat,*

Geamparale, Gopak, Banatane...

Tronpeta: **Ghenadii Boldisor**

Biolina: **Pavel Tiganas**

Akordeioa: **Daniel Olarasu**

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte
elkartean (Herri Musikaren Txokoaren ondoan)
musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta
dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait
lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15
euro.



**kontzertu honen
laguntzaileak:**





HM 6. Jardunaldiak

Datorren urrian HM 6. Jardunaldiak ospatuko ditugu. Edizio berri honen gaia Alboka izango da.

Aurten, bat egingo dute urtero ospatzen diren herri musikaren inguruko bi ekintzok:

- Albokarien Hernaniko Topaketa.
- Oartzunen ospatzen diren Herri Musikaren Jardunaldiak.

Horregatik Jardunaldi hauen antolaketa HM Txokoa eta Hernani Musika Eskolako Alboka Eskolaren artean egingo dugu.

Gaia ondo eta behar den bezala aurkezteko eta jorrazteko egitaraua prestatzen ari gara.

HM Eskola Eguna

Pasa den ekainaren 2an ospatu zen HM Eskola Eguna giro ezin hobean. Ez zen musika falta izan Oartzungo plaza eta kaleetan. Aldamenean dagoen argazkian bezperan egindako entsaioaren une bat ikus daiteke.

BISITARI KOPURUA

Apirila: bisitari kopurua: 335

Antolatutako taldeak: 19

Maiatza: bisitari kopurua: 475

Antolatutako taldeak: 23

Bisitari kopurua ekainera arte: **15.042**

TXISTULARI JAIALDIA HERNANIN

Hirugarren urtez txistulari jaialdia antolatu dute Hernaniko txistulariek, besteak beste HM txokoaren laguntzaz. Maiatzaren 4tik 6ra, Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak emandako kontzertuarekin hasi zen aurten goa, eta igandez burututako topaketarekin itxi, 40 bat txistulari eta atabalari bildu zirelarik bertan, egun pasa, giro ederrean. Baina jaialdiaren erdigunea, beharbada, larunbatean ospatu zen HERNANIKO III TXISTULARI GAZTEEN TXAPELKETA izan zen, urtez urte partaide gehiago biltzen ari dena: Lizarra, Iruña, Burlata, Bilbo, Oartzun, Hernani, Irun, Donostia, Pasaia, Astigarraga, Lasarte, Tolosa, Azpeitia eta Antzuolako gaztetxoak aritu ziren bertan lehiari (argazkian, aurtengo sarituak). Hiru urte egin dituelarik, Hernaniko txistulariak eta HM txokoaren arteko lankidetzak hau sendotzen ari dela esan liteke. Orain laugarrenaren bila.



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oartzungo
udala